

Informazio Orokorra 2012



**IMD
UKE**
Barakaldo
Udala | Ayuntamiento

Barakaldoko U.K.E.

Vega La Punta, 1 - 48901 Barakaldo
Tfno. 94 478 99 00 - Fax 94 478 99 01

🌐 www.imdbarakaldouke.com

✉ info@imdbarakaldouke.com

Gorostiza Kirolegia

☎ 94 478 99 06

Lasesarre Kirolegia

☎ 94 478 99 04



OHARRA:
U.K.E.-k liburuxka
honek ezinbesteko
aldaketak izan
daitekeela
jakinarazten du.
Berri hauek behar
den moduan
argitaratuko dira.



Barakaldo
Udala | Ayuntamiento

ABONATU BERRIEK BEHAR DITUZTEN AGIRIAK

- Argazki berri bat, 4 urtetik gorako senideko bazkide bakoitza.
- Alta eskaeraren agiria behar den beterik.
- Erroldaren agiri berria, Barakaldon bizi direnak.
- Bazkideak izan direnek, aurreko txartela.
- U.K.E.-n aurreko agiriak aurkeztuz gero, honek emandako ordainagiria aurkeztu behar da edozein B.B.K.-ko bulegotan ordainketa egiteko.

ABONATUEN BERRIZTAPENA

- **HELBIDERATUAK** (urte osorakoak bakarrik): urte osorako kuota helbideratuko zaie beren banketxe kontutan, eta honek balidatzen du txartela, ez da besterik egin behar.
- **EZ HELBIDERATUAK:** U.K.E.-k gutunez bidaliko die ez herbideratu urte osorako bazkide guztiei ordainagiria, edozein B.B.K.-ko bulegotan ordaindu behar duena. Ez da besterik egin behar. Sei hilabeteko eta hiruhilabeteko ez helbideratu bazkideek ordainagiri hori eskatu beharko dute U.K.E.-ko bulegotan edota kiroldegietako harreratan.

PENSIONISTAK

Pentsioa lanbide arteko gutxienezkoa baino baxuagoa daukaten pentsionistek, urteko bazkide **kuotaren erdia** ordainduko dute, hura behar bezala justifikatu ondoren. Berriztapenak kiroldegiko bulegoetan egin beharko dira eta urtero justifikatu.

ABONATUEN KUOTAK MURRIZTEKO

Barakaldo udal-mugarteko etxebizitza berean erroldaturik daudenentzako U.K.E.-k urteko, sei hilabeteko edo hiruhilabeteko kuotak murrizteko arau batzuk ezarri ditu, bai bakarkoentzat bai hiru kide edo gehiago unitate familiarrentzat. Horretarako, bizikidetza unitateak bete behar ditu honako baldintza hauek:

- 1.- Bizikidetza unitatearen erroldatze egiaztatua.
- 2.- Bizikidetza unitatearen 2010 errenta aitortpena.
- 3.- Autonomoen kasuan, azken 4 hiruhilabetetako aitortpenak.
- 4.- Pentsioen jasotzaile izatearen ziurtagiria.
- 5.- Bizikidetza unitatearen ongien egiaztatua.
- 6.- Bizikidetza unitatearen ibilgailuen egiaztatua.
- 7.- Beren kasuan langabeziaren egiaztatua.
- 8.- Bermatutako gutxieneko diru-sarreraren ziurtagiria, hala badagokio.

Abonatu eta Erabiltzaileentzako Informazioa

Familia bazkide txartelaren barruan sartuko dira: **titularra ezkonkidea eta 21 urte baino gutxiago** dauzkaten seme-alabak eta **87 eta 90** urte bitartean biak barne, jaiotako seme-alabak, ikasten edo langabezia daudenean eta urtero behar bezala justifikatzen badute.

- Bazkide **bajak abenduaren 15aren aurretik** jakinarazi beharko dira.
- 2012eko urtarrilaren 31tik ez da onartuko ordainagiri herbideratuen itxulketarik.
- Instalazioan sartzeko derrigorrezkoa da bazkide edo erabiltzaile karneta aurkeztea, bestela sarrera ordaindu beharko du.
- Bañu librerako, 12 urte baino gutxiago dutenak heldu batekin etorriko dira.
- Bazkide karneta behar ez den moduko erabilerak, gutxienez 15 egungo zigorra izango du
- **Edozein zerbitzuko bonuen epea abenduaren 31n amaitzen da.**
- UKEk entrenamendu edota lehiaketetarako ordutegiak agoitzeko eskubidea bere esku uzten du, hala nola, gizarte kiroleko iharduerak, bere eskupen dauden instalazio guztietan, erabiltzaileei alde z aurretik ohartaraziz.
- Ikastaroengatik, udal eskolagatik, klubengatik edota beste programaturiko jarduerengatik, erabiltzeko moduan den ur orria, batzuetan %50ean beteta egon daitekeela jakinarazten zaie erabiltzaileei.
- Herriko eskol-taldeei igeriko sarreretan prezioa berezi bat egingo zaie (1,90 € ume bakoitzak), hau lortzeko alde z aurretik eskatu behar da eta ikasordutegian izango da eta gehienez ordu bitarako. Gehienezko kopurua 30 ikasle.



ERRESERBA DAITEZKEEN INSTALAZIOAK

Gorostitza eta Lasasarreko kiroldegietako eta Barakaldes pilotalekuko kirol-pista guztiak erreserbatzeko aukera dago. Horrez gain, beti ere euren arauak kontuan hartuz, Serralta, La Siebe eta Ansioko futbol-zelaiak ere erreserba daitezke. Erreserba egiten duenak, eguneko, ordu bat soilik erreserba dezake aukeratutako instalazioa.

NOLA EGIN

Erreserbak egiteko bi modu daude: Gorostitza eta Lasasarreko kiroldegietan jarritako makina gai-banatzaileren bitartez edo bestela www.imdbarakaldouke.com web orrialdean erabiliz. Bigarrenaren kasuan ezinbestekoa da zerbitzu horretako alta hartzea, horretarako, UKEko bulegoetan datuak jasotakoan, ordainketa helbideratuak burutu ahal izateko gako bat egokitzen zaio interesatuari.

Ordaindu beharra dago erreserba egiten den une berean.

e-mailez ezin da inolako erreserbarik egin.

TELEFONOZ EZIN DA INOLAKO ERRESERBARIK EGIN.

Hutsegite informatiko edo matxurarik gertatuz gero, ezin da aurrez erreserbatu.

ERRESERBA EGIN AHAL IZATEKO AURRETIKO EPEA

Abonatuak zazpi egun lehenago edozein pista erreserbatzeko aukera dute, baldin eta aukeratutako kiroldegietako makina erabiltzen badute, eta sei egun lehenago baldin eta erreserba beste kiroldegi batean edo Interneten egiten badute.

Abonatuak ez direnek hiru egun lehenago erreserbatu beharra daukate.

Makina gai-banatzailak erabiltzeko dagokion instalazioa irekita egon behar da, Interneten bidezko erreserbak, ordea, eguneko 24 orduetan.

Bestalde, berehalako erreserbek (erreserbatu eta berehala burutzen direnak) ez dute inolako murrizketarik, hau da, pi sta libre izanez gero, nahi adina ordutarako erreserba daiteke, beti ere, pista erabili aurretik, erreserba eta ordainketa burutu behar direla kontuan edukiz.

ORDAINKETA MOTAK

Makina gai-banatzaileren bidezko erreserbak egiteko honako bi modu daude: dirutan (makinetan txanponak sartu ahal dira beti, baita balio handiko zein txikiko billeteak ere, diru-kopuruaren arabera) edo banku-helbideratzearen bitartez. Bigarrenaren kasuan ezinbestekoa da zerbitzu horretako alta hartzea, horretarako, UKEko bulegoetan datuak jasotakoan, ordainketa helbideratuak burutu ahal izateko gako bat egokitzen zaio interesatuari.

Interneten bidezko erreserbak bankuhelbideratzearen bitartez ordaintzen dira aurreko kasuan emandako pausoak burutuz.

EZ DA ONARTUKO ITZULITAKO ORDAINAGIRI HELBIDERATURIK

Ordainagiri helbideraturik ez ordaintzeak zerbitzuaren baja dakar berekin automatikoki, eta sortutako zorra kitatu arte, ezin izango da metodo horren bidezko inolako erreserba edo zerbitzurik ordaindu.

BA AL DAGO EGINDAKO ERRESERBA BALIOGABETZEKO AUKERARIK?

Behin erreserba egin ondoren, ezin da baliogabetu.

UKERI egotzitzako arrazoiak tarteko edo eguraldi txarra dela medio, kirola segurtasunez ezin praktika badaiteke eta erreserbatutako pista ezin erabili badaiteke, aldatzeko aukera dago

Erreserban adierazitako ordutegian bertan eta kiroldegiko harrera-gela berean, non erreserbaren zenbatekoa itzuliko den, abonatu-txartelean edo, ez abonatuaren kasuan, makinatik ateratako txartelean zenbatekoa kargatuz. Baldin eta, erreserban adierazitako ordutegian, kiroldegian bertaratzerik ez badago, aldaketa bost (5) laneguneko epean egingo da, honela: harrera-gelan xede horretarako emandako eskabide-orrria bete, hortik, UKEko bulegoetara bideratuko delarik, edo bestela, posta elektronikoaren bidez, reservas@imdbarakaldouke.com helbidera, zera adieraziz:

- Interesatuaren izen-abizenak (abonatu-zenbakia, halakoa bada).
- Erreserba berriaren eguna.
- Zein pistatan (zehaztu zein den pista zenbakia).
- Zein ordutan.
- Erreserba egiten duena aurkitzeko moduko telefono-zenbakia.
- Aldaketa egiteko zergatia.

UKEko administrarrizak interesatuarekin jarriko da harremanetan, eta haren eskabideari buruz erabakitakoa jakinaraziko dio.



ERRESERBATUTAKO PISTAN SARTZEKO

Abonatuak karneta erakutsi beharra daukate alokatutako pistan sartzeko.

Abonatuak ez direnek, ordea, txartela erosi behar dute dagokion pistan sartzeko eskubidea eskura dezaten (sarrera bakarra edo hamar sarrerako bonoa izan daitekeena).

Makina gai-banatzailak inprimatutako ordezkagiria da egindako erreserbaren frogagiri bakarra.

Bestalde, harrera-lekuko enplegatuek edozein unetan eskatu ahal dute erreserbaren ordezkagiria edota abonatu-karneta zein sarrera

SERRALTA, La SIEBE ETA ANSIOKO FUTBOL-ZELAIAK

Serralta, La Siebe eta Ansioko futbolzelaiak erreserbatzerakoan zenbait inguruabar aintzat hartu beharra dago:

– Bi F-7 partida batera jokatu ahal direla F-11 zelai batean.

– F-7 zelai bat erreserbatzeak zelai berean F-11ean batera jokatzea eragozten duela.

– Honakoa dugu erreserbak egiteko egutegia:

Ekainaren 1etik 30ra astelehenetik igandera, jendaurreko erreserbak 9:00-tik 21:00-ra

Abuztuaren 1etik 31ra, astelehenetik igandera, jendaurreko erreserbak 9:00-tik 15:00-ra.

Irailaren 1etik maiatzaren 31ra, astelehenetik ostiralera (jaiegunetan izan ezik), jendaurreko erreserbak goizetan 9:00-tik 14:00-ra.

Zelai horiek erabiltzeko erreserbak 3 egun lehenago egin behar dira, gutxienez.

Abonatuak ez diren kasuan zelai horiek erabiltzeko erreserbak 4 egun lehenago egin behar dira, gehienez, eta zazpi egun lehenago abonatuak baldin badira.

Elkarren segidako bi orduko erreserba dago ezarrita zelai bakoitzean, gutxienez.

Abonatuak karneta erakutsi beharra daukate zelaietan sartzeko.

Abonatuak ez direnek, ordea, txartela erosi behar dute kiroldegietako makinetan, azkenean, erreserba Interneten bidez eginez gero, erreserban zenbat ez abonatuak erabiliko duen instalazioa jarri behar da, dagokien diru-kopurua erreserbako ordainagirian ordainduz.

Arau partikular hauetan jasota ez dagoena indarrean dagoen erreserbei buruzko arau orokorraren menpean dago.

SARTZEAN

Derrigorrezkoa da tornuak erabiltzea instalaziotan sartzeko, **abonatu-txartela, sartzeko bonua edo sarrera-txartela** aldean edukita, kontroleko langileei erakutsiz eskatzen duten guztietan.

Bainu libreko modalitateari dagokionez, 12 urtetik beherakoek adinez nagusiko arduradun batek lagunduta egon beharra daukate.

Abonatu-txartela behar bezala ez erabiltzeak gutxienez 15 egunez kentzea eragingo du.

ALDAGELETAN

Ez ekarri kiroldegira baliiodun objekturik.

Aldageletako armairuan gordeko dira norberaren gauzak, objektu pertsonalak ondo zainduta utziz beti.

UKE ez da, inolaz ere, armairuetan gordetako objektuen erantzule, eta armairuak ez dira erabiliko gordailu edo kontsigna gisa.

Armairuak irekita eta hutsik geratu behar dira eguna amaitzean.

Derrigorrezkoa da aldageletan lur bustirako oinetakoak janztea, baita paperontziak erabiltzea ere.

8 urtetik gorako Erabiltzaile guztiak, aldagela egokian sartu behar dira.

Aldageletan debekatuta dago:

Jatea, beste erabiltzaileei eragozpenak sortzea (korrika egin, txistua bota, oihuka ibili, ...), tabakoa erretzea, alkohola edatea, bizarra kentzea edota depilatzea.

Ura zentzuz erabiltzea, bai iturrietakoa, eta bai, dutxetakoa ere.

IGERILEKUAN**DERRIGORREZKOA DA:**

Dutxatzea bainatu aurretik, baita bainatzeko gunera joatean ere, bereziki, komunak erabili eta gero.

Bainu-txanoa janztea.

Igerileku-eremuan bainujantzia erabiltzea, edo, bestela, **kirol arropa eta kirol oinetakoak**.

Instalazioak ezarritako **ordutegia errespetatzea**.

Karteletako oharrak, arauak eta seinaleak betetzea eta aintzat hartzea, era berean, **sorosleek, monitoreek eta instalazioko langileek emandako aholkuak errespetatzea**.

GOMENDATZEN DA:

Txankletak janztea.

Igerilekuko kaleen eskuinaldean igeri egitea, bi noranzkoetako zirkulazioa erraztuz, eta horrela, igeriketa-eremuaren erabilera hobea lortuz.

Ura zentzuz erabiltzea, bai iturrietakoa, eta bai, dutxetakoa ere. Ura ondasun urria da, beraz, ez alferrik xahutu!

Bainatzeko gunean sartu aurretik, komunak erabiltzea

DEBEKATUTA DAGO:

Igeritokietan arropa edota oinetako ezegoki jantzita egotea.

Xaboiak, xanpuak edo antzekoak erabiltzea igerileku-eremuko dutxetan.

Hegatsak, betaurrekoak (igerian espezifikoak direnak izan ezik), **koltxonetak, flotagailuak, tamaina handiko jolas-materiala erabiltzea baimenik gabe.** Hegatsek erabilera terapeutikoa izango dute soilik (lesioen erreku-peraziorako), eta horren baimena eskuratu ahal izateko, Osakidetzaren egiaztapen-agiria aurkeztuko beharra dago UKEko bulegoetan.

Zauriak, larruazaleko eta gorputzeko gaitzak dituztenak bainatzeko gunean sartzea, eta bai, ukipenaren bidez erraz kutsatzen den gaixotasunaren baten susperraldian daudenak ere, ukipena zuzenekoa edo zeharkakoa uraren, elementu pasiboaren (adibidez, kortxo-ilarak edo igeriketa-taulak), airearen, ... bitartez izan daiteke.


Beirazko objektuak edo hauskorrak diren gauzak **sartzea.**

Jatea (belar naturaleko gunean izan ezik), erretzea, edari alkoholdunak edatea eta edozein motatako substantzia toxiko kontsumitzea.

Igerilekuetako ura zikintzea eta uretan txistua botatzea edo zintz egitea.

Beste erabiltzaileei eragozpenak sortzen dizkieten irrati edo soinu-aparatuak erabiltzea. Kasu guztietan, musikaren erreprodukzioa pertsonalizatua izango da (entzungailuen bidez).

Laguntzarik gabeko adingabeak igerileku-eremuan egotea. Gurasoak edo tutore legalak dira adingabeen arduradun nagusi, eta bai, horiek egiten dutenaz ere, batez ere, baldin eta igerian ez badakite edo haurrak badira.





Neurriak

INSTALAKUNTZETARAKO SARRERA

Abonatuak	-----
Abonatuak ez direnak	3,75 €
Jubilatuak	1,90 €
10 sarrerako bonuak	34,35 €

INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ORDU BATEKO NEURRIAK

	Al-Or 9-etatik 13-etara (jaiegunak izan ezik)	BESTE ORDUAK ETA JAIEGUNAK	ARGIA
Barakaldo Pilotaleku	6,95 €	8,95 €	4,40 €
Gorostitzako Pilotaleku	3,25 €	4,15 €	2,95 €
Gorostitzako Pabiloi edo Lasesarreko modulo 1	20,05 €	26,70 €	4,20 €
Lasesarreko pabiloi (3 moduloak)	60,25 €	80,05 €	12,70 €
Estalitako Tenis-pista	3,75 €	5,00 €	2,20 €
Kanpoko Tenis-pista	3,25 €	4,15 €	2,20 €
Padel	3,25 €	4,15 €	2,20 €
Gorostitzako kanpoko Estalitako Pabiloi	13,90 €	18,35 €	4,15 €
Belar artifizialeko zelaia	8,95 €	12,30 €	2,20 €
Kanpoko saskibaloia pista	5,00 €	6,05 €	2,05 €
11-futbol zelai	71,60 €	71,60 €	7,00 €
7-futbol zelaia	35,75 €	35,75 €	3,45 €

SAN BIZENTE KIROLDEGIA

		ABONATUAK	EZ ABONATUAK
Atletismo pista	Hilabete bat	—	3,10 €
	Urte osorako kuota	—	18,05 €

KIROL EZ DIREN JARDUEREN ALOKATZEKO NEURRIAK	BARAKALDO PILOTALEKU	LASESARREKO PABILOI
EZ IRABAZIZKOKAK (asterketak, hitzaldiak, azokak, erakusketak...)		
9-etatik 15-etara 15-ean 15 h.	791,10 €	2.068,35 €
15-etatik 22-etara	791,05 €	2.068,35 €
9-etatik 22-etara	1.186,75 €	3.102,50 €
Moketa jarri eta kendu	237,40 €	—
22 -etatik 24-etara. ordu bete edota zati bakoitzatik	118,80 €	310,20 €
IRABAZIZKORRAK		
9-etatik 15-etara 15-ean 15 h.	1.582,35 €	4.136,90 €
15-etatik 22-etara	1.582,35 €	4.136,90 €
9-etatik 22-etara	2.373,75 €	6.205,10 €
Moketa jarri eta kendu	237,40 €	—
22 -etatik 24-etara. ordu bete edota zati bakoitzatik	197,80 €	517,10 €
ALDERDI POLITIKOAK, ONG-aks, HERRIALDE ETXEA ETA BARAKADOKO UDALAREKIN ANTOLATUTAKO JARDUERAK		
9-etatik 15-etara 15-ean 15 h.	594,90 €	1.555,30 €
15-etatik 22-etara	594,90 €	1.555,30 €
9-etatik 22-etara	988,85 €	2.586,00 €
Moketa jarri eta kendu	237,40 €	—
22 -etatik 24-etara. ordu bete edota zati bakoitzatik	118,80 €	310,50 €
BARAKALDOKO UDALA		
9-etatik 15-etara 15-ean 15 h.	197,80 €	517,10 €
15-etatik 22-etara	197,80 €	517,10 €
9-etatik 22-etara	395,50 €	1.034,20 €
Moketa jarri eta kendu	237,40 €	—
22 -etatik 24-etara. ordu bete edota zati bakoitzatik	118,80 €	310,50 €

LASESARRE KIROLDEGIKO ARETOA		
Ordu bat		56,05 €
Hurrengo orduak edota zatiak		33,60 €

FUTBOL ZALAIK

KIROL EZ DIREN JARDUERAK		
Takillarik gabe		2.804,20 €
Takillarekin		4.005,75 €
KIROL JARDUERAK		
Takillarik gabe		400,60 €
Takillarekin		801,20 €



Jendeaurreko Irekierako Ordutegia

GOROSTITZA KIROLDEGIA

Astelehenetik Larunbatera:	08:15-etatik 22:00-etara
Igandeak eta jaiegunak (neguan):	08:15-etatik 14:00-etara
Igandeak eta jaiegunak (udan):	08:15-etatik 22:00-etara

Barruko igeritokiko ordutegia

NEGUAN	UDAN
01/01-tik 06/14-ra Eta 09/17-tik 12/31-ra	UDAKO EGITARAUA IKUSI
Astelehenetik Larunbatera: 08:15-etatik 20:45-etara igeritoki biak 20:45-etatik 22.00-etara hastapeneko igeritokia	
Igandeak eta jaiegunak: 08:15-etatik 14:00-etara	
* Abuztuaren 1-etik 31-ra, barruko igeritokiak itxita izango dira	

Kanpoko igeritokiko ordutegia (udan)

(Ekainaren 15-tik irailaren 16-ra)

Astelehenetik Igandera baita jaiegunak ere 10.30-etatik 20.45-etara

LASESARRE KIROLDEGIA

Astelehenetik Larunbatera:	07:15-etatik 22:00-etara
Larunbatak:	08:15-etatik 22:00-etara
Igandeak eta jaiegunak:	08:15-etatik 21:00-etara
Apirilaren 2-tik 9-ra igeritokiak itxita egongo dira Eusko Jaurlaritzaren 32/2003 dekretua EHAA 2003.eko Maiatzaren 8a	
Apirilaren 9 an Lasasarre Kiroldegia ITXITA egongo da 12:00-etatik aurrera 865/2003 dekretua jarraituz	

BARAKALDO PILOALEKUA

Astelehenetik Ostiralera: 10:00-etatik 22:00-etara

LEHIAKETA EDOTA ENTRENAMENDU DAGOENEAN, ITXITA

SAN BIZENTEKO KIROLDEGIA

Astelehenetik Ostiralera: 08:15-etatik 21:00-etara - Larunbatak, Igandeak eta jaiegunak: 08:15-etatik 13:30-etara

PARTIDUAK DAUDENEAN, ITXITA

ORDUTEGI BEREZIAK

Urtarrilaren 1a eta 6a eta Abenduaren 25a U.K.E.-ko instalazio guztiak ITXITA egongo dira.

Abenduaren 24a eta 31a U.K.E.-ko instalazio guztiak 12:00etan ITXIKO dira.

Urtarrilaren 27a, Gorostitzako Kirolegia eta U.K.E.-ko bulegoak ITXITA egongo dira.





Abonamenduko Kuotak

SENIDEKOA	URTEKOA*	SEIHILEKOA**	HIRUHILEKOA***
ERROLDADUNA	142,50 €	106,95 €	71,40 €
Gehienez 9.000 €-ko diru-sarrerak dituzten hiru kide edo gehiagoko familiak*	65,00 €	42,00 €	—
Gehienez 12.900 €-ko diru-sarrerak dituzten hiru kide edo gehiagoko familiak*	87,55 €	65,90 €	44,30 €
Gehienez 19.900 €-ko diru-sarrerak dituzten hiru kide edo gehiagoko familiak*	100,20 €	75,20 €	50,45 €
Gehienez 23.800 €-ko diru-sarrerak dituzten hiru kide edo gehiagoko familiak*	112,80 €	85,50 €	56,65 €
Gehienez 29.500 €-ko diru-sarrerak dituzten hiru kide edo gehiagoko familiak*	124,65 €	95,80 €	62,85 €
29.500 € baino gehiago-ko diru-sarrerak dituzten hiru kide edo gehiagoko familiak*	142,50 €	106,95 €	71,40 €
SENIDE UGARI ERROLDADUNA	114,10 €	85,60 €	57,05 €
EZ ERROLDADUNA	183,95 €	137,35 €	91,95 €

*2. orrian agertzen den moduan.

BANAKAKOA	URTEKOA*	SEIHILEKOA**	HIRUHILEKOA***
ERROLDADUNA	82,60 €	62,05 €	41,35 €
Erroldaduna gehienez 9.000 €-ko diru sarrerak	45,00 €	26,00 €	—
EZ ERROLDADUNA	115,05 €	86,30 €	57,45 €

* 01/01 -tik 12/31-ra

** 1/01 -tik 06/30 -ra eta 07/01-tik 12/31-ra

*** 01/01 -tik 03/31-ra, 04/01-tik 06/30-ra,
07/01-tik 09/30-ra eta 10/01-tik 12/31-ra

TXARTELAREN BIKOIZKINA

• Galduz gero:

- NAN aurkeztu
- 3,10 € ordaindu

• Lapurreta izanez gero:

- NAN aurkeztu
- Salaketa frogagiria

